



DIRULAGUNTZEN DEIALDIA: EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA-BERDINTASUNAREN SUSTAPENA

Deialdi hau Basauriko Udalaren dirulaguntzen ordenantza orokorraren babesean argitaratu da. Ordenantza hori 2024ko maiatzaren 30eko osoko bilkuran onartu eta 2024ko abuztuaren 6an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta deialdi honen oinarri arautzaileak ezartzen ditu.

Gizarte-politika ARLOA

BALORAZIO-BATZORDEAREN OSAERA: Enpleguko Informazio-batzordea, Ekonomia-sustapena, Merkataritza, Berdintasuna eta Bizikidetzaren Aniztasunean eta Immigrazioa

<u>DIRULAGUNTZA-LERROA</u>	<u>EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO AUKERA-BERDINTASUNAREN SUSTAPENA</u>
<u>DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN KONTZEPTUA</u>	<u>EMAKUMEEN ELKARTEEK EGINDAKO JARDUERAK</u>
<u>Aurrekontu-partida</u>	<u>051 2316 48136</u>
<u>Partidaren deskribapena</u>	<u>T. arr. Basauriko Emakumeen Elkarteei. BERDINTASUNA</u>
<u>Zenbatekoa:</u>	<u>18.000,00 €</u>
<u>Emakidaren araubidea</u>	<u>NORGEHIAGOKA</u>

1. HELBURUA:

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduerak egitea, eremu guztietan emakumeen parte-hartzea, aholkularitza eta informazioa bultzatuz, eta gizartea, oro har, aukera berdintasunari buruz kontzientziatuz.

2. NORI ZUZENDUA:

Udalerriko emakumeen elkarteei eta entitateei, horien helburua emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea eta esparru guztietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko jarduerak egitea baldin bada.

3. DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN JARDUERA:

Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzen duten eta esparru guztietan emakumeen rola, eskubideak eta ekarpenak ikusarazten dituzten jarduerak egiteko programak.

o BAZTERKETAK:

Basauriko Udalaren dirulaguntza-deialdiaren barruan beste dirulaguntza-lerro baten xede diren programak.

Beste administrazio publiko batzuen dirulaguntzen deialdi espezifikoaren xede diren programak.

4. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

- **Eskaera-formularioa**, dokumentu hauekin batera:
 - Jardueren proposamena.
 - Aurrekontua.
- **IFZ**ren fotokopia.
- Udalari baimenik ematen ez bazaio betebeharrak fiskalak betetzeari buruzko datuak biltzeko: betebeharrak fiskalen ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen **ziurtagiria**.
- Udalari baimenik ematen ez bazaio Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzeari buruzko datuak biltzeko: Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela edo entitateak bere kargura langilerik ez duela egiaztatzen duen **ziurtagiria**.

Azken bi ziurtagiri horiek ordeztu ahal izango dira, baldin eta eman beharreko dirulaguntza 3.000 € baino handiagoa ez bada, Udalak emandako erantzukizunpeko adierazpenengatik.

Betebeharrak fiskalak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea bete beharko da eskaera aurkezteko unean, dirulaguntza emateko unean, betebeharra onartzeko unean eta ordainketa egiten den unean.

- **Sexu-delituengatik** ziurtagiri negatiboari buruzko **erantzukizunpeko adierazpena**.
- **Adingabe baten babesgabekeria-egoeraren** susmoa udaleko gizarte-zerbitzuei jakinarazteko konpromisoari buruzko **erantzukizunpeko adierazpena**.
- Udalaren dirulaguntzarik edo edozein kontzepturengatik Udalaren beste ordainketarik jaso ez duten pertsonak edo entitateak, Hirugarrenen Erregistroan inskribatuta ez badaude, eskura emango zaien **Hirugarrenen Fitxa** aurkeztu beharko dute.

5. AURKEZTEKO EPEA:



Hilabete bat deialdi hau BAOn aurkezten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Iragarkien Taulan eta Udalaren webgunean argitaratuko da deialdiaren testu osoa.

Deialdiari buruzko informazio guztia udal webgunean egongo da eskuragarri ([www. BASAURI. eus](http://www.BASAURI.eus)), eta bertatik jaitsi ahal izango dira dagozkion ereduak.

Eskaerak Basauriko Udalaren Egoitza Elektronikoan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legean aurreikusitako edozein lekutan aurkeztuko dira.

6. BALORAZIO-IRIZPIDEAK:

Entitate eskatzaileen arteko hainbanaketa, $((D-N)/T) \times P$ formularen arabera, non:

- D = aurrekontu-partidan eskuragarria.
- N = diruz lagundutako zenbatekoa lehen aldiz eskatzen duten entitateei.
- T = eskatzaile guztiek guztira lortutako puntuen batura.
- P = onuradunak lortutako puntuak.

Gutxienez 50 puntu eskatzen dira dirulaguntzaren hartzailea izateko, eta hauexek izango dira dirulaguntza emateko irizpideak:

IRIZPIDEA	GEHIENEO PUNTUAZIOA
	100
1. PROIEKTUAREN KALITATE TEKNIKOA	45
1.1. Proiektuaren formulazioa: helburuak eta justifikazioa	10
1.2. Garatu beharreko jarduerak (aintzat hartuko dira proposamen berritzaileak)	15
1.3 Metodologia parte-hartzailearen erabilera	5
1.4 Proiektua prozesu zabalago baten zatia da	5
1.4. Egindako jardueren jarraipena eta ebaluazioa	5
1.5 Inpaktua du, gizartean eragiten du, publiko zabala du edo gaitasun biderkatzailea du	5
2. IKUSPEGI FEMINISTA INTERSEKZIONALA TXERTAZEA¹	40

¹ Jarduerak giza eskubideen urraketa eta estigmatizazioa eragin dezaketen faktore gehiago bil ditzaketen pertsonak erdigunean jarrita egitea. Ikuspegi intersekzionala txertatzeak esan nahi du kontuan hartu behar dela nola sexuak edo generoak harremana duten beste diskriminazio-faktore batzuekin (hala nola adina, arraza, jatorri etnikoa, hizkuntza, klasea, desgaitasuna, sexu-orientazioa, genero-identitatea, genero-adierazpena, hiri- edo landa-eremuko bizilekua, administrazio-egoera, kultura), maila askotan eta maiz aldi berean, nola sortzen diren identitate gainjarriak eta intersekzionatuak, bai eta egoera eta botere- eta zapalkuntza-ardatz desberdinak eta elkarri

2.1. Desberdintasun handiagoko baldintza eta posizioetan egon daitezkeen emakumeak integratzeko jarduerak aurreikusten ditu.	5
2.2. Desberdintasun handiagoko baldintza eta posizioetan dauden emakumeak entitateko gobernu-organoetan ari dira.	5
2.3. Proiektuak ahalduztze feminista pertsonal, kolektibo eta politikoari laguntzen dio.	10
2.4 Indarkeria matxistaren aurrean herritarrak informatzeko, sentsibilizatzeko, prebenitzeko eta jarduteko ekimenak egiten ditu.	5
2.5 Sexu-aniztasunarekiko informazioa ematen eta sentsibilizatzen du eta errespetua sustatzen du.	5
2.6. Lankidetzaren beste elkarteekin: sareak sortzea eta esperientziak trukatzeko	5
2.7. Proiektuak zerbitzuak, baliabideak edo neurriak jartzen ditu martxan jardueren eta zaintza-erantzukizunen eta parte-hartzaileen familia-bizitza, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko.	5
3. EUSKARA SUSTATZEA ETA HEDATZEA	5
3.1 Jarduerak garatzean euskara lehentasunez erabiltzea	3
3.2 Jarduerak garatzean euskara soilik erabiltzea	5
4. ENTITATEKO BAZKIDE-KOPURUA	10
4.1 Basaurin bizi den bazkide-kopurua 100 bazkide baino gutxiago	1
4. 2 Basaurin bizi den bazkide-kopurua. 101etik gora	1 puntu 100 bazkideko (gehienez 10)

7. DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA:

1. Dirulaguntza emateko, eskatutako kopuruaren % 100 justifikatu beharko da, eta ez bakarrik Udalak emandako kopurua.
2. Kontu justifikagarri sinplifikatuak gutxienez dokumentu hauek jasoko ditu:

lotutakoak ere. (1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bateratua onartzen duena).



- a) Egindako proiektuaren azalpen-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita, txosten justifikagarriaren arabera.
- b) Jardueren kostua justifikatzen duen txosten ekonomikoa:
 - Diruz lagundutako jarduerarekin lotutako gastuen zerrenda, erantsitako “Facturen zerrenda listado de facturas” deritzon Excel dokumentua betez eta dagozkion dokumentuen kopia erantsiz.
 - Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten diru-sarreraren zerrenda, diru-sarrera publiko edo pribatu guztiak zehaztuta, diruz lagundutako jarduerak egiteko lortutako bazkide-kuoten ekarpenak barne hartuta. Zenbatekoa, diru-sarrera zein erakundetatik datorren, administrazio publikoen eta erakunde pribatu edo publikoen dirulaguntzak eta bestelako diru-sarrerak adieraziko dira, dagozkien agiriak erantsita.
 - Erantzukizunpeko adierazpena, honako hauek jasoko dituenak:
 - Aurkeztutako fakturak eta txosten justifikagarriak Basauriko Udalak diruz lagundutako jarduerak edo programak gauzatzeko beharrezkoak diren gastuei dagozkiela.
 - Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako faktura eta egiaztagiri digitalizatuak jatorrizkoen digitalizazioak direla, inolako aldaketarik izan gabe.
3. Emandako dirulaguntzak justifikatzeko epea dirulaguntza eman eta hurrengo ekitaldiko urtarilaren 31n amaituko da.
4. Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira inolako zalantzarik gabe diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak eta diruz lagundutako programak gauzatzeko epean egiten direnak.
5. Ez justifikatzea edo behar bezala ez justifikatzea: dirulaguntza Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 29. artikuluan ezarritako baldintzetan justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada edo behar bezala justifikatzen ez bada, dirulaguntza Ordenantza horretan ezarritako baldintzetan itzuli beharko da.

Era berean, jasotako laguntza itzuli beharko zaie Udal-kutxei, dagozkion berandutze-interesekin, Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritakoaren arabera.

8. ENTITATE ONURADUNEN BETEBEHARRAK:

Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 12. artikuluan ezarritakoak, eta, bereziki, dirulaguntza eman duen organoaren aurrean justifikatzea jarduera egin dela eta dirulaguntzaren xedea bete dela.

Berdintasun-arloaren dirulaguntza jasotzen duten emakume-elkartek zuzenean parte hartu beharko dute Udalean dagoen herritarren partaidetzarako organoan, hots Berdintasun-kontseiluan. Berdintasun-kontseiluaren bileretara lau aldiz baino gehiagotan joaten ez diren elkarteei kendu ahal izango zaie emandako dirulaguntza.

9. AZPIKONTRATAZIOA HIRUGARRENEKIN:

Udal-dirulaguntzak emateko Basauriko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren 27. artikuluan ezarritako baldintzetan.

10. ENTITATE ONURADUNAK JASOTAKO DIRULAGUNTZARI PUBLIZITATEA EMATEA:

Dirulaguntza jasotzen duen entitate orok udal-finantzaketa horren berri eman beharko du, Udalaren logotipoa barne, sortzen dituen material inprimatuetan (kartelak, liburuxkak, informazio-orriak, etab.), oroitzapen-plaketan, bitarteko elektronikoetan edo ikus-entzunezkoetan, edo idatzizko komunikabideetan argitara daitezkeen iragarkietan.

11. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRULAGUNTZEKIN.

Basauriko Udalak ematen dituen dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek emandakoekin. Nolanahi ere, dirulaguntzetatik eta beste iturri batzuetatik lortutako finantzaketaren zenbatekoa ezin izango da diruz lagundutako programaren kostua baino handiagoa izan.

12. DIRULAGUNTZAK ORDAINTZEA.

Oro har, dirulaguntza aldez aurretik ordainduko da, justifikatu baino lehen, emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa, dirulaguntzari atxikitako jarduerak egin ahal izateko beharrezko finantzaketa gisa.

Emandako dirulaguntza banku-transferentzia bidez ordainduko da, udal honetako Hirugarrenen Erregistroan agertzen den entitatearen kontu korrontean.

Dirulaguntza ez da ordainduko baldin eta entitate onuradunak justifikazio-epea amaituta duen dirulaguntzaren bat justifikatu gabe badu. Era berean, ez da ordainduko entitateak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, hala eskatu zaionean.

13. EBAZTEKO ETA JAKINARAZTEKO EPEA.



Eskaerak ebazteko eta entitate eskatzaileei jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa da, deialdia argitaratzen denetik zenbatzen hasita, eta emandako zein ukatutako dirulaguntzak jakinaraziko dira.

14. GAUZATZEKO EPEA.

Jarduerak edo programak egiteko epea dirulaguntza ematen den ekitaldiko abenduaren 31n amaituko da.